

Noticias de Gipuzkoa

Gipuzkoa Reala Cultura Actualidad Opinión Deportes Economía Vivir ON Participación Servicios

Política **Sociedad** Sucesos Unión Europea Mundo Albisteak Deusto Positivos en coronavirus **Kurriña Etxean**

ÚLTIMA HORA Última hora del coronavirus y el estado de alarma

Noticias de Gipuzkoa » Actualidad » Sociedad

11

Sei lagun hil dira eta 30ek eman dute positibo azken orduetan Gipuzkoako adinekoen egoitzetan

ORAIN ARTE 223 KASU POSITIBO IZAN DIRA GIPUZKOAKO EGOITZA SAREAN

N.G. | 07.04.2020 | 19:14



Adineko pertsona bat erresidentzian zehar paseatzen. **Javier Bergasa**

DONOSTIA - Azken orduetan **sei lagun zendu dira eta 30ek eman dute positibo koronabirusagatik Gipuzkoako egoitzetan**. Eider Mendoza foru bozeramaileak jakitera eman duenez, hil diren sei pertsonak Beasaingo Arangoitin, Eibarko Egogain egoitzan, Tolosako Iurreamendin (2) eta Ordiziako San Josen (2) bizi ziren. 14 izaten jarraitzen dute kasu positiboren bat atzeman duten egoitzak. **Guztira 46 lagun hil dira eta 223 kasu positibo eman dira Gipuzkoako egoitza sarean**. Beste alde batetik, Gurutze Gorriara 43 pertsona eraman dira eta 17 ospitalerata daude.

Beste egun batez, bozeramaileak **egoitzetako langileek egiten duten lana eskertu du**, "oinarrizkoa eta nekazina" dena, baita "hain konplexua den egoera honen aurrean senitartekoan lankidetzeta eta ulermena" ere. Beste alde batetik, gaur Diputatuen Kontseiluan onartutako neurri berrietako bat ekarri du gogora, gizarte zerbitzuen arloan abian jarritako Txoke Planaren baitan, non zehazten diren **suhiltzaileak egoitza zentro guztietan egiten ari diren desinfekzioak**. "Birusaren hedapenaren prebentziorako eta zabalkunderako oso modu eraginkortzat" kalifikatu duena, eta azaldu du: "Orain arte, 20 pertsona baino gehiagoko zentroetan astero egin dira, baina zerbitzua indartu dugu eta lau egunez behin egiten da orain, kasu positiboak dauden egoitzak lehenetsiz".

Zentzu horretan, Mendozak azpimarratu du **Gipuzkoa ahalegin handia egiten ari dela zaugarrienak diren pertsonen "zerbitzu eta arreta onenak" emateko**, eta gaineratu du "eragile ezberdinen arteko lankidetzeta estuari esker, krisi honi modu sendoan erantzuten ari garela". Bere esker ona zabaldu nahi izan die "euren eskuetan dagoen guztia egiten ari direnei", DYA esaterako, zeinak boluntarioen bidez, egoitza zentroen desinfekzio lanetan ere

Sociedad



La procesión de los 'súper'

donostia - Las largas colas a las puertas de los supermercados han regresado, como se temía. Con...



Ciudad sellada Wuhan



Azkoitia acogerá una planta para la gestión de residuos no peligrosos



Líderes de todo el mundo piden al G20 una respuesta común a la crisis

Noticias de Sociedad

UNA TIENDA MUSICAL CON UN **NUEVO CONCEPTO**